

UDABERRIAREN EDERTASUNA.



GUZIA ZUZENTZEN DUENAREN ARRASGO MIRAGARRIA.

Sartu gara Udaberri edo Primaberako sasoñ arin eta ederrean: dagoneko adiarazten du bere kutsu gozagarria lurraren gañean bizi diren izate guzietan: ok ematen dakute Guziadezakenaren egite miragarriak atsegin andiarekin betustetzeko eta miresteko bide berri bat.

Ala da; ¡zér nolako itzuli miragarriak egiten dituen sasoñ eder unek izate guzietan! ¡Zér gogaldia, zer sorreginkeria! ¡Zéin ezagutu ezina den Izate andi unen onetsia sasoñ guziak, bata bertzearen ondotik, batere makurtu gabetanik, erabillazten ditueanean!

Lurra iratzartzen eta bereganatzen da bere edertasuna ta yoritasuna berriz artzerakoan; izate guziak pizten dire, ta aditzera ematen dute beren bozkario ta kontentua.

Denbora guñi duela oraño lurraren azala utsa eta soilla zagon. Udaberrian kordegabetzen gaituzten ibarrak elurpean eortziak zauden; zeruraño zorian alchatuak ikusten ditugun mendien erpiñ urdinuak, ormaz estaliak, eta barnezgarrizko lañoaz inguratuak zauden; errechinoleta otsastaria bizituko den zuaizti berde ta ostodun orietan etzen ikusten adar idor ta desorrituak baizik; oyantarrak ezkutatuak zauden; airea bere kantuekin beteko duten choriak, leze barnakoyetan sorregiñak arkitzen ziren, edo gure bizileku tristetarik urrunduak.

Bazter guzietan bazagon damurrizko išiltasun bat, gure begiatara agertzen etzala bakartasun triste bat baizik.

¡Ain gozakaitzak dire negu beltz eta biguintézarriaren mugialdiak!
Bañan guzieldunaren atsa nabaitzen denean, izaira bere baitara

itzulten da, eta dena mugitzen da. Eguzkia gure boillerdira urbiltzen da, eta eguna agintzen duen zeruizar argitsu au, barnatzen da airean bere berotasun bizigarriarekin.

Zitu mota guziek nabaitzen dute aren birtute ongillea, eta lurra landare oyan ederrez estaltzen da; bazter guziak berritzen ta edertzen dire; ezta alorrik gure begiei urrundik ikuskai atsegingarririk, eta ur-bildik airea urrintzen ta usma gozaten duten lorerik ematen ez duenik.

Larreak erregatzen dire, eta mendilepoak irrikorrezko berdetasunez yauntzten dire; eta gure begiak arritzen dituzten lore galantuaz gañera, landai ta zageigar guziak bere mota botatzen dute eta atsegin andiarekin prestatzen dute berzek eken ordez bete bear duten tokia.

Baño izpiritua, gozoki gogotatua, arritzen da zuaitzen goratasuna ikustean, osto negurri oneko ta gozatsuaz estaltzen asten direnean; gisa berean zuaitzcho umill eta apalenak, eta belar motchak eta loreak ere eginala ari dire lurra kolore banatu ta bertzegituekin betetzeko ta nauturretzeko.

Orduan iduri du landak irrikatzen direla atsegiñez beterikako kantu, ta bozkario ezti baten mintzoarekin izaira guziaren laudarioak eta eskerrak zerurano allegatzen dire. Egazti bakotchak austen du kantua bere goraberako eztitasunarekin, bere aldetik bizia ta onkarria eramaten duela mundu guzian ageri den iduritegiari.

Taldeak deadarka ta beoiuka adiarazten dute bere baitan nabaitzen duten bizia ta atsegiña.

Neguan gogortuak eta ureko zolan ormatuak bezala zauden arraiñak erreketatik igaten ikusten dire, eta lenagoko bizi ta zaulitasuna artu ta ondoan beren salto naikari ta mugidekin gure begiak poztutzen dituzte.

Ez gaitu gutiago arritzen, ta eztu ere gutiago umilltzen gure zau-pena, ikusteak nola mamurruak ere denbora untan adierazten duten beren atsegin ta kontentua: denek lupetik ateratzen dire indar imandar batek ekarrazten balituke bezala; denek alchatzen dute burua, eta munduko bazter guziak bizidunez betetzen dire, gauza guziak indar eta otserruarekin edatzen dire; erbalenak ere artzen du sendotasuna, ta iraungitera egiten du Izate Goyenak nai duen arauera.

Lezetan eta oyanetakako leku gordeenetan ezin burutuzko sumiñarekin, bere lagunetatik urrundurik, negua igarotzen duen larreak bereak ere, udaberri irrikorrean nolabait eztitzen du bere manua,

billatzen du lagun bat, unekin elkarganutzen da bere kasta umetzeko.

Itz batean: udaberria da lurraren berritze bakida; neguan beti batean dagola iduri duen bezala, orai agertzen da bertzegitua ta balakaitia begitarte tristearen ondotik.

Unen etortzeak ematen dazku milla gozaldi berriak, dela loreen edertasun ta usaigozoan, dela egaztien kantu eztieta, dela bozkario ta atseginezko ikustate irrikor ta bakidean.

Ok guziak oniritzen ta gogaltzen gaituzte, alako eran, non zorian uste dugu bizitegi berri batean sartzen garela.

Alakoak dire udaberrian miresten ta poztutzen gaituzten miragarriak; eta amai gabeko Izateak bakarrik, bere ardura jakintsu ta egokorra dela medio, egin dezazke ainbertzeko emanaitasun eta andikoyarekin bere loriarako, ta gabetik eginikako izairaren ooreko.

¡O! zenbat bide dituen gizonak Jaungoikoaren egiteak miresteko, eta eskerrak biotzetik emateko.

Ongi pensatuz bakarrik nolako ezin ezagutzeko eran egiten den urtero gertaldi andi oken berritzea, beren aldekoak berekin dakarten gozaldi, atsegin ta kontentu betearekin; edo naiz ez dezan gizonak anitz pensatu udaberriaren begitarte arrigarri eta bozkariotsuan, ez dezake ez deadar egin mugida naizi, ta eskertasun biguinaz beterik «Udaberriaren edertasunak direla Jaungoikoaren yabiltasunaren arrasgo miragarriak.»

ESTÉBAN OBANOS.

Iruñan

